


# Euskaraldian parte hartu nahi dut

## Zein rol hartuko duzu Euskaraldian?



Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dut uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut. Batzuetan zaila izan arren, elkarrizketa elebidunetan ere euskarari eusten diot kideek ulertzen dutenean. Gakoa ahal den guztietan euskaraz egitea da.



Nire gaitasun eta aukeren arabera erabakitzen dut euskaraz noliz eta norekin egin. Beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek niri uneoro euskaraz hitz egitea nahi dut; eta horixe eskatzen diet modu esplizituan.

**Gogoratu! Rola aukeratzean, gakoa jokaeran dago, ez gaitasunean.**